

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Behin betiko onestea Maeztuko antzinako Felisa jatetxearen UE-12 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programa

Udalbatzaren 2018ko otsailaren 7ko osoko bilkuran erabaki da:

Behin betiko onestea Maeztuko antzinako Felisa jatetxearen UE-12 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programa, non proposatzen baita UE 12 egikaritze unitatearen azalera berriro mugatzea 1.139,83 metro karratutara, kentzeko dagoeneko okupatuta eta urbanizatuta dagoen 104,17 metroko azalera, foru errepideari dagokiona.

Programaren edukiaren funtsezko elementuak dira 2017ko urriaren 27ko ALHAOn, 124. zk., argitaratutakoak, UJParen hasierako onarpenaren arabera.

Behin betiko onartzea UE 12 berriro lurzaticatzeko proiektua, zeinak jabe bakarra baitauka eta F.T. B. eta L. A. U. G. deiturikoek aurkeztu baitute, mugatzeko irabazizko aprobetxamenduko lurzattia eta hirigintzarako nahitaez laga beharreko lurzattia.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, hirigintza arauetan xedatutakoa betez.

Onarpen erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, eman duen organoari. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan; horretarako, bi hilabeteko epea izango da.

Maeztu, 2018ko otsailaren 12a

Alkatea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA